

ADINEKO PERTSONAK ARDATZ DITUEN DISEINUA IKASTAROA

GAIA	Diseinu Industriala
ECTS/ORDUAK	8 ORDU
EGUTEGIA	2023/05/10 - 2023/05/10 Az
TOKIA	Urduliz <u>NIC</u>
HIZKUNTZA	Gaztelania
MODALITATEA	Aurrez aurrekoa

Informazio gehiago
eta izen-ematea


AURKEZPENA

Pertsonetan oinarritutako diseinua (ingelesezko siglen HCDA) funtsezko diziplina da etorkizuneko erronkei erantzuten dieten produktu eta zerbitzu berriak diseinatu eta merkaturatzeko. Ikuspegi horrek pertsonen beharrak diseinu-prozesuaren erdian jartzeko tresnak proposatzen ditu.

Gero eta luzeagoa eta askotarikoagoa den gizarte batean, beharrezkoa da pertsonen aniztasuna kontuan hartzea diseinu-prozesua planifikatzeko orduan, eta, horretarako, diseinu integratzailearen tresna espezifikoak erabil ditzakegu. Alderdi etikoek garrantzi berezia dute erabiltzaileak zuzenean inplikatzaren diren proiektuetan.



Kontsultatu hemen Silver Economyra bideratutako formakuntza teknologiko guztia.



HELBURUAK

Ikastaro trinko honetan, produktu eta zerbitzu berriak diseinatzeko prozesu osoan pertsonak sartzearen eta inplikatzearen garrantzia ulertuko dugu. Bereziki azpimarratuko da aldaketa demografikoak eta bizitza-luzerak gizartean duten aniztasuna. Horretarako, aniztasuna txertatzeko eta pertsonen berariazko beharrak produktu eta zerbitzu arrakastatsu bihurtzeko tresnak ezagutu eta aplikatuko dira. Adinekoen profiletara hurbiltzea eta haiei zuzendutako produktu eta zerbitzu berriak proposatzea. Balio-proposamenak egitea (teknologia berriak, produktuak eta zerbitzuak), Silver Economyren garapenean eragin nabarmena lortzeko.

NORI ZUZENDUA

Silver Economy sektoreko profesionalak, pertsonetan oinarritutako produktu eta zerbitzu integratzaile berrien diseinura hurbiltzeko interesa dutenak. Marketinaren, ingeniartzaren, diseinuaren, osasunaren, sektore soziosanitarioaren eta negozioen esparruko profilak.

PROGRAMA

1. Pertsonetan oinarritutako diseinua eta diseinu inklusiboa Silver Economy-n.

- Balio Soziala
- Balio estrategikoa

1. DBZko pertsonetan oinarritutako berrikuntza-teknologia (Diseinu Berrikuntza Zentroa)

- Bilaketa estrategikoa
- Miaketa
- Ideazioa
- Garapena
- Implementazioa
- Irteera

1. Diseinu integratzailearen tresna espezifikoak

- Elderpertsonak. Bizitza-luzeraren aniztasuna ezagutzeko
- INKLUGI. Produktu eta zerbitzuek sortzen duten baztertze-maila kalkulatzeko
- INKLUDIRE. Produktu eta zerbitzu integratzaileagoak eta eskuragarriagoak diseinatzeko jarraibideak

1. Alderdi etikoak

- Erabiltzaileak biltzea
- Baimen informatua

- Datuak gordetzea eta babestea

1. Silver Economy-rako teknologia eta zerbitzu berriak aztertzeke kasuak

- Produktu inklusibo berriak
- Irisgarritasun-irtenbide berriak
- Aisialdiko eta ikasteko proposamen berriak
- Zainketa-zerbitzu berriak
- Etxebizitzarako irtenbide berriak
- Ondare eta bizi-amaierako zerbitzu berriak

KOLABORATZAILEAK/ BABESLEAK



PREZIOA

275€

- %10eko deskontua beste saioekin batera egiten bada

[Informazio gehiago](#)

Saio independente bakoitza

INFORMAZIO GEHIAGO

AINHOA GORONAETA

+34 664 266 716

cursosingenieria@mondragon.edu

<https://www.mondragon.edu/cursos/eu/adineko-personen-diseinua>